



---

## A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako **ohiko bilkurarena**,

**2021eko maiatzaren 28a**

**Amurrio Antzokian, 13:06ak** direnean, jarraian zerrendatzen diren batzordekideak elkartu dira **ohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta Gianfranco Ghiro Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzordekideak bertaratu dira:

Encina CASTRESANA ASTARLOA (EAJ-PNV)  
Ander AÑIBARRO MAESTRE (EAJ-PNV)  
Andoni RODRÍGUEZ ORÚE (EAJ-PNV)  
Iñigo PINEDO VADILLO (EAJ-PNV)  
Montserrat ANGULO SOLLOA (EAJ-PNV)  
Txerra MOLINUEVO LAÑA (EAJ-PNV)  
Nuria LÓPEZ LUMBRERAS (EAJ-PNV)  
Maite CORTÁZAR AGÜERA (EAJ-PNV)  
Alberto ARTETXE VICENTE (EAJ-PNV)  
Ixone SARATXAGA IBARRETXE (EAJ-PNV)  
Juan José ESCUZA DEL CAMPO (EAJ-PNV)  
Nagore GOMARA PICAZA (EH BILDU)  
Irene ITURBE ERRASTI (EH BILDU)  
Maitane SALUTREGI GARDEAZABAL (EH BILDU)  
Iñaki IBARLUZEA ORTUETA (EH BILDU)  
Jon BERGANZA URRUELA (EH BILDU)  
Karmele POBLACIÓN MARTÍNEZ (EH BILDU)  
Nerea GONZÁLEZ GARCÍA (OMNIA)  
David ROMERO CAMPOS (PSE-EE)  
María Dolores MURIEL AROCA (PSE-EE)  
Sergio TATO EGUREN (OKONDO AURRERA)  
Iratxe PARRO UZQUIANO (AIARA BATUZ)

Ez dira bertaratu eta ez etortzea justifikatu dute honako jaun-andre batzordekide hauek:

Gentza ALAMILLO UDAETA (EAJ-PNV)  
Eva MARQUÍNEZ BLANCO (EAJ-PNV)  
Joseba VIVANCO RETES (EH BILDU)  
José María GUTIÉRREZ ÁNGULO (EH BILDU)



---

Naiara OTAOLA GONZÁLEZ (EH BILDU)  
Arkaitz SAN JOSÉ MARTÍNEZ (EH BILDU)  
Álvaro BARRIOS MEDINA (OMNIA)

**Kuadrillako presidente andreak, lehenengo deialdian, 13:06an**, osoko ohiko bilkura irekita dagoela adierazi du, idazkariak bilera abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

## **1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA**

Deialdiarekin batera, egindako azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi da, azter dezaten, eta presidente andreak galdetu du alegaziorik egin nahi den.

**Parro Uzquiano andreak** (AIARA BATUZ talde politikoaren bozeramailea den aldetik) zenbait akats azaldu ditu, eta aktan zuzendu dira.

Beste alegaziorik egin ez denez, bozkatu da eta ERABAKI DA, aho batez, 2020ko azaroaren 26ko bilkuraren akta onestea.

## **2.- INFORMAZIO BATZORDEETAN EAJ-PNV TALDEKO KIDEEN ALDAKETAREN KONTU EMATEA**

Castresana andreak EAJ-PNV taldeko bozeramaileak, Alamillo Udaeta jaunak, aurkeztutako idazkiaren berri eman du. Bertan, Informazio Batzordeetako kideen aldaketa hauek ezartzen dira:

PRESIDENTZIA, ADMINISTRAZIO-JARDUERA, FUNTZIO PUBLIKO, KONTZEJU ETA TOKI-, FORU- ETA AUTONOMIA-ADMINISTRAZIOAREKIKO ETA BESTE ERAKUNDE, OBRA ETA ZERBITZU BATZUEKIKO HARREMANETARAKO INFORMAZIO BATZORDEA: **ANDER AÑIBARRO MAESTRE** batzarkideak beteko du titular postua, GENTZA ALAMILLO UDAETA jaunaren ordez.

EUSKARAREN INFORMAZIO BATZORDEA: **GENTZA ALAMILLO UDAETA** batzarkideak beteko du titular postua, JOSUNE IRABIEN MARIGORTA andrearen ordez. **IXONE SARRATXAGA IBARRETXE** batzarkideak beteko du titular postua, TXERRA MOLINUENO LAÑA jaunaren ordez.



---

### **3.- KUADRILLAN 2021EKO LEHEN LAUHILEKOAN EGINDAKO JARDUEREN KONTU EMATEA**

Castresana Astarloa andreak, besteak beste, aurreko osoko bilkuraren mozioari emandako erantzunaren berri eman du, eta adierazi du Kuadrillak bai AFari bai EJri eskatu ziela epea luzatzeko (luzapena) turismo-ekintzak burutzeko (20/11/24). Biak ezeztatu ziren (20/12/30), eta, beraz, 2021ean ezin izan ziren erabili.

Bestalde, talde politikoek aurreko osoko bilkuretan egindako ekarpenak ikusita, beharrezkotzat jo da Kuadrillan Plan Estrategiko bat egitea, gure indarguneak eta ahuleziak aztertzeke, partaidetza-prozesu baten barruan (eragile politikoak, teknikoak, sozioekonomikoak, herritarrak...). eta 2030 Agendaren GJHein bat eginez, "Zer nahi dugu gure Kuadrillan?" galderari erantzuteke.

Iaz geroztik, kuadrillako etorkizuneko LZ lantzen ari dira. Bertan ematen diren zerbitzuek zer bilakaera izan duten ikusi behar da, eta arlo berrien ezarpena aztertu.

Lehenengo lauhilekoan Kuadrillan egindako jarduera guztien kontu eman da arloetako batzorde desberdinetan, eta Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundiaren eta beste erakunde batzuen dirulaguntzak jaso dira udalen ekarpena murrizteko.

Azkenik, Arabako Foru Aldundia egiten ari den Arabako sustapen-kanpaina aipatu da eta aurkezpen-bideoa erakutsi da.

### **4.- MARIO ORTIZ PANIEGO JAUNAK GASTEIZKO LAN-ARLOKO EPAITEGIAN AURKEZTUTAKO DEMANDAREN KONTU EMATEA**

Castresana Astarloa andreak Lan-arloko Epaitegian Mario Ortiz Paniegok aurkeztutako demandaren berri eman du, 2021eko apirilean egindako adiskidetze-egintzaren ondoren. Epaiaketa 2022ko urtarrilaren 31rako zehaztu da. EKAIN abokatu-bulegoarekin harremanetan jarri gara, auziaren abokatu-defentsa egiteko. Maiatzaren 20ko 27/2021 Presidentziaren Dekretuaren bidez, 385/2021 lan-arloko auzibidean pertsonatzea onetsi, eta abokatu-defentsa eta prokuradoreen ordezkari izendatu dira.

### **5.- ONETSITAKO AZKEN DEKRETUEN KONTU EMATEA**

Castresana Astarloa andreak azken bilkuratik onetsitako Presidentziaren Dekretuen kontu eman du. Honako hauek dira:  
68/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, azaroaren 20koa, TGB kargutik kendu eta izendatzeari buruzkoa



69/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, azaroaren 23koa, SARTUren esleipenari buruzkoa

70/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, azaroaren 24koa, behin-behineko idazkariaren izendapenari buruzkoa

71/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, azaroaren 26koa, neguko bideak garbitzeko zerbitzuaren aldi baterako esleipenari buruzkoa

72/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, azaroaren 26koa, azaroko nominari buruzkoa

73/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, azaroaren 30koa, argazki-ikastaroaren esleipenari buruzkoa

74/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, abenduaren 11koa, mutualitate eta leasing gastuen transferentziari buruzkoa

75/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, abenduaren 18koa, aparteko ordainsariari buruzkoa

76/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, abenduaren 28koa, arkitektoaren eta aparejadorearen kontratazioa luzatzeari buruzkoa

77/2020 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, abenduaren 28koa, abenduko nominari buruzkoa

01/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 12koa, 3 talderen 2. errekurtsioari erantzuteari buruzkoa

02/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 25koa, EEP 19-20 likidazioari buruzkoa

03/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, urtarrilaren 29koa, urtarrileko nominari buruzkoa

04/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, otsailaren 3koa, Gastu orokorren eskaera eta 1. hiruhileko zerbitzuei buruzkoa

05/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, otsailaren 5koa, HHS 1. hiruhileko ekarpen eskaerari buruzkoa

06/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, otsailaren 12koa, Mikelen kitapenari buruzkoa

07/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, otsailaren 24koa, Gastu orokorren ekarpenen erregularizazioari buruzkoa



---

08/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, otsailaren 24koa, 2020 HHS ekarpenen erregularizazioari buruzkoa

09/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, otsailaren 25ekoa, otsaileko nominari buruzkoa

10/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 2koa, 2020 likidazioa onesteari buruzkoa

11/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 5ekoa, GFA kredituak sartzeari buruzkoa

12/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 11koa, euskara tailerren esleipenari buruzkoa

13/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 12koa, Vital Fundazioaren hitzarmeneko trebakuntzen esleipenari buruzkoa

14/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 18koa, Tokikom sustapenaren esleipenari buruzkoa

15/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 22koa, ingurumen-saskien esleipenari buruzkoa

16/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, martxoaren 24koa, martxoko nominari buruzkoa

17/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 12koa, adiskidetze-egintzako ordezkariari buruzkoa

18/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 13koa, 2021eko ordainsarien igoera onesteari buruzkoa

19/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 13koa, Gastu orokorren eskaera eta 2. hiruhileko zerbitzuei buruzkoa

20/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Dendatik Etxera banaketaren esleipenari buruzkoa

21/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 23koa, behin-behineko idazkariaren izendapenari buruzkoa

22/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 26koa, apirileko nominari eta atzerapenei buruzkoa



---

23/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 26koa, ingurumeneko poltsa eta kiten esleipenari buruzkoa

24/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, apirilaren 30koa, Lanbast eskaeraren erantzunari buruzkoa

25/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, maiatzaren 10koa, HHS 2. hiruhileko ekarpen eskaerari buruzkoa

26/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, maiatzaren 13koa, Eusko Jaurlaritzari turismo laguntzak eskatzeari buruzkoa

27/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, maiatzaren 20koa, 385/2021 lan-arloko auzibidean pertsonatzeari buruzkoa

28/2021 PRESIDENTZIAREN DEKRETUA, maiatzaren 21koa, Mugi Zaitzez-en SARTU Arabarekin lankidetzaren esleipena

## **6.- ESKAERAK ETA GALDERAK**

Ez da alegaziorik aurkeztu.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **13:17ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, behin-behineko idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**PRESIDENTEA: Sin.: Encina Castresana Astarloa**

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA: Sin.: Gianfranco Ghiro Alonso**

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE